

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### OGASUN SAILA

Aurrekontuak, Finantza-kudeaketa eta Diruzaintza

#### **Konpromiso-kreditu bat sortuz aurrekontu-aldaketa egiteko dosierren behin-behineko onespena**

Behin-behineko onespena eman zion Gasteizko udalbatzak kreditua aldatzeko dosier honi 2018ko ekainaren 15eko aparteko bilkuran:

08.24 3411 227.10 aurrekontu-aplikazioan "Final Four kontratua" konpromiso-kreditua sortzea.

<u>Urtekoa</u>	<u>Zenbatekoa</u>
2019. urtean	500.000,00 euro

Udalbatzaren Araudi Organikoaren 164. artikuluan, Arabako lurralde historikoko Toki erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan eta Toki Ogasunak arautzeko Legearen Testu Bategina onetsi zeneko martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 169. artikuluan xedatutakoaren ildotik, hamabost egun balioduneko epea zabaltzen da, erreklamazio eta iradokizunak aurkezterik izan dadin, Udalbatzari zuzenduta.

Behin betiko onetsizat joko da dosierra baldin eta jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko ekainaren 22an

*Ogasun Saileko zinegotzia*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**